

Deborah Ellis, *Gerrateko ogia*.
Ibaizabal (Ameslari bilduma, 4. zenbakia)
Itzultzailea: Aitor Arana

Albistegietan gehiegi erreparatu gabe ikusten ditugu askotan berriak, baita ikaragarrienak ere, seguru aski izenik gabekoak direlako, eta izenik gabeko historiek ez dutelako izaten jendea hunkitzeko indar askorik. Baina, aski da historia bati izen bat ipintzea, norbaiten istorio bihurtzea, alegia, kontakizunak gure interesa piztu eta sentimendu mordoa eragiteko gure baitan. Horrela, Irakeko gerrako krudelkeria izugarriaz gehiago jabetu ginen hanka-besorik gabe gelditu zen Ali izeneko umezurtzaren istorioa jakin genuenean, telebistatik zuzenean bonben leherketak ikusten genituenean baino.

Bada, horixe da Deborah Ellisen liburu honekin gertatzen dena; hainbat aldiz entzun dugu zer nolako egoera tamalgarrian bizi ziren emakumeak talibanen garaiko Afghanistanen, eta egia da horrek mundu osoan erreakzio zabala eragin zuela, nahiz eta orain badirudien kontzientziak lasaitu egin zaizkigula, gauzak benetan hobeto ote doazen ziur jakin ez arren. Baina, Parvana izeneko neskatuari buruzko istorio honek berehala harrapatzen du irakurlea, protagonistarekiko enpatia handia sortaraziz eta, horren bidez, munduan oraindik ere gertatzen diren bidegabekeria onartezinetako batekiko sentiberatasuna esnatuz. Berdin da, gainera, liburuaren aurkezpenean esaten badigute idazleak egiatan ezagutu zituen ama-alaba batzuen kontakizunean oinarrituta dagoela liburu hau; halaxe baita, izan ere, Ellisek denbora luzea eman baitzuen herrialde hartako errefuxiatuen kanpamenduetan, eta bertatik bertara jakin ahal izan zuen hango emakumeek pairatu behar izan zuten bazterketaren berri.

“Garai batean, Kabul ederra izan zen”, dio liburuak; espaloiak, semaforoak, jatetxeak zituen, baita zineak, arropa dendak, liburu dendak ere, gure hiriek bezalaxe; baina Afghanistanek 20 urtetik gora igaro zituen gerran, eta geroztik eraikin bonbardatuak baino ez daude nonahi, hondakinak eta hautsa besterik ez. Eta, gainera, talibanak iritsi ziren boterera, eta haiekin herrialde osoa Erdi Aro moderno batera erori zen; parterik txarrena, askotan bezala, emakumezkoek jasan behar izan zuten, talibanen fanatismo erlijiosoaren ondorioz.

Parvana izeneko neska batek hiri hondatua baino ez du ezagutu bere bizi laburrean, bere familia guztiz txirotua dago gerrate luzearen ondoren, nahiz eta jende ikasia izan, Mendebaleko unibertsitateetan ibilia eta, lehenago, bizimodu erosoan bizitakoa izan. Orain, talibanekin, Parvanak *txadorra* edo buruzapia eraman behar du kaletik ibili ahal izateko; beste emakume helduek, are okerrago: burutik oin puntaraino estalita ibili behar dute, *burka* delakoaz, eta ezin dira senarrik, semerik edo gizonezko senide baten laguntzarik gabe ibili, zigor latza jaso edo presondegian bukatu nahi ez badute. Neskak eskolara ere ezin dira joan, mutilentzat bakarrik direlako orain.

Halako batean, familia osoaren bizia putzu are sakonago batera jausiko da: aita zentzurik gabeko salaketa bategatik kartzelara sartu eta denbora luzean haren berririk bat ere jakin gabe geldituko dira; horren ondorioz Parvanak hartu beharko du bere gain familia osoaren biziraupena. Izan ere, talibanen gobernuarekin, emakumeek ezin zuten inolako lanik egin, ez eta eguneroko bizimoduko gauzarik sinpleenetako asko: denda baten barrura sartu, adibidez, janaria erosteko. Beraz, Parvanari ilea moztuko diote, mutiko baten antza izan dezan, eta horri esker kaletik ibili ahal izango da, ama eta ahizpa nagusia ez bezala, ur bila joateko, merkatuan jendearen gutunak irakurriz eta idatziz diru piska bat irabazteko, eta irabazten duen diru apurrarekin janaria erosteko. Hala, mutiko gisa jantzita, Parvana laster konturatuko da bera ez dela bakarra trikimailu arriskutsu hori erabiltzera behartuta dagoena, eta bera bezalako beste neskatila batzuk ere badabiltzala familiarentzako bizimodua ateratzen, ahal duten bezala, mutil arropak jantzita.

Liburu beharrezkoa da hau ere -zer nolako munduan bizi garen jakiteko-, euskarara ederki ekarria eta 12 urtetik aurrerako irakurleentzat egokia.

Koldo Biguri